

KANALDUDE

2018ko PROIEKTU DEIALDIAK

Akitania Berriarekin abiatu 2018-2020ko Helburu eta Baliabide Kontratuaren kariatara, Kanaldude webtelebistak, 2018an, proposatzen du:

- Sorkuntza-dokumentalak : 1-3 sorkuntza-dokumental aurre-erostea; jatorrizko sorkuntza izan behar dute, 200 €/min-ko prezio finkoarekin. Horrez gain, gutienez sorkuntza-dokumental batentzat idazketa-hitzarmena izenpetuko da.
- Fikziozko film laburrak: fikziozko 1-2 film labur aurre-erostea; jatorrizko sorkuntza izan behar dute, 200 €/min-ko prezio finkoarekin. Horrez gain, gutienez film labur batentzat berridazketa-hitzarmena izenpetuko da.

Proiektu-deialdiaren bururatzea: 2018ko martxoaren 30a.

TESTUINGURUA

Kanaldude linean den bideo-plataforma bat da, eta 2007az geroztik euskarazko ikus-entzunezko programak proposatzen ditu. 2018ko otsailaren 1etik goiti, bere programak jario baten baitan zabalduko ditu eta streaming bidez (replay) ere so egiten ahalko zaie. Ikus-entzunezkoen Kontseilu Gorenarekin (CSA) hitzarmena badu.

Akitania Berriaren sostenguarekin, Kanaldudek ikus-entzunezko sorkuntza sostengatu nahi du euskaraz hedatutako filmak lagunduz, eta, bere mailan, euskarazko ikus-entzunezko sailaren dinamizazioan parte hartuz. Akitania Berriarekin abian jarri dugun Helburu eta Baliabide Kontratuan bermatuz, Kanaldudek bi hedapen-tarte sortuko ditu osoki jatorrizko sorkuntzei eskainiak: **HORDOK** sorkuntza-dokumentalei eskainia izanen da, **ZINE GAUALDIA**, fikziozko film laburrei.

PROIEKTU-DEIALDIA: SORKUNTZA-DOKUMENTALAK

2018an, Kanaldude engaiatzen da 1-3 sorkuntza-dokumental aurre-erostea 200€/min-ko diru-ekarpenarekin. Horrez gain, idazketa-hitzarmen bat izenpetuko du 1.500-3000 €-ko ekarpen finkoarekin, hots, orotara inbertsioa 26 000 €-koa izanen da. Industria-ekarpen batek katearen inbertsioa osatzen ahalko du, onartuko diren proiektuen beharren arabera.

EGITUREK BETEBEHARREKO EZAUGARRIAK ETA HAUTAGARRITASUN IRIZPIDEAK

Egiturek betebeharreko ezaugarriak :

Nagusiki ikus-entzun edo zinema ekoizten duten egiturek soilik (APE 5911 A edo C kodea duten sozietate edo elkarteek) aurkez ditzazkete proiektuak (aurre-erosketa edota idazketa hitzarmenentzat).

Proiektuak gutienez ondoko bi irizpide bete behar ditu:

- Proiektua eramaten duen autore edo zuzendariak bere bizitegi nagusia eskualdeko lurraldean du;
- Proiektua eramaten duen ekoizpen-egitura eskualdeko lurraldean finkatua da;
- Proiektuak kultura harreman azkarra du Akitania Berriarekin;
- Fabrikazioaren parte nagusi bat eskualdeko lurraldean iraganen da.

PROIEKTUEN HAUTUA

Webtelebistako 2 ordezkari eta mundu profesionaletik datozen irakurleek hautaketa-batzorde bat osatuko dute. Proiektuen alde bateko hautaketa berantenez 2018ko maiatz bukaeran egingen da.

Dokumentalen aurre-erosteko, kateak eta irakurketa-batzordeak irizpide hauei kasu egingen die :

- Filmak publiko euskaradunari eskainiak izatea.
- Proiektuak kalitatezkoak izatea: proposatu gaien egokitasuna, tratamendua berezia izatea, sorkuntza mailan anbiziozko idazketa izatea.
- Proiektuak autore gazteek eramatea.
- Proiektuak nazioarteko koprodukzioek eramatea.
- Ekonomikoki eta teknikoki egingarri izatea, finantzamendu-plana sendoa izatea.
- 2019ko irailetik goiti hedatzeko prest izatea.
- Proiektuaren kariatara euskarazko gaitasun artistikoei edota teknikoei dei egitea edo horretarako formatzea.

- Proiektuek CNCren (Zinemaren Nazio Zentroaren) diru-laguntzen irizpideei erantzutea (laguntza automatikoak edo selektiboak).

Dokumental baten idazketa-hitzarmenarentzat, kateak eta irakurketa-batzordeak irizpide hauei kasu eginen die bereziki:

- Filmak publiko euskaradunari eskainiak dira.
- Proiektuak kalitatezkoak izatea: proposatu gaien egokitasuna, tratamendua berezia izatea, sorkuntza mailan anbiziozko idazketa izatea.
- Egitekoak gelditzen diren idazketa lana, bilaketak eta leku aurkitzeak egokiak izatea.
- Proiektuak autore gazteek eramatea.
- Proiektuaren kariatara euskarazko gaitasun artistikoei edota teknikoei dei egitea edo horretarako formatzea.

PROIEKTUEN AZTERKETA

Proiektuak 2018ko martxoaren 30a arte igor daitezke, e-postaz, fitxategi bakarrean (PDF formatuan, gehienez 10 Mo) helbide honetara: prod@kanaldude.eus

Proiektuen hautagarritasuna egiaztatu ondoan eskuratze-agiri bat igorriko zaie proiektu-eramaileei, proiektua errezibitu den egunetik goiti aste bat barne.

Kateak ekoizleak deitzen ahalko ditu proiektuen garapena zertan den jakiteko gisan. Proiektu-eramaileei azkarki kontseilatzen zaie kateari proiektuaren eboluzio handien jakinaraztea e-postaz.

Aurre-erosiko diren proiektuentzat, txostenean ondoko elementuak agertu beharko dira :

- Fitxa artistiko eta tekniko bat autore, zuzendari, produktore eta koproduktoreen deitura-helbideekin; produkzioaren plangintzarekin; filmaren ezaugarri teknikoekin (iraupena, formatua,...); filmaketa eta post-produkzio lekuekin; talde artistiko eta teknikoaren zerrendarekin.
- Filmaren laburpena.
- Autorearen edota zuzendariaren xede nota.
- Produktorearen xede nota.
- Sinopsi garatua.
- Zuzendaritza nota obraren tratamendua zehazteko.
- Aurrekontu zehatz bat Akitania Berriko eskualdean mobilizatuko diren jende eta teknika baliabideak agertarazten dituen.
- Finantzamendu-plana, behar bada bildu diren finantzamenduak zehaztuz.
- Autoreen eta film-egileen CVa.

- Proiektu-eramaile den produkzio sozietatearen edo elkartearen aurkezpena.
- Autorearen eta produktorearen artean izenpetu eskubideen lagatze kontratuaren kopia bat.
- 3 hilabete baino guttiagoko Kbis dokumentua sozietateentzat, edo prefeturako frogagiria elkartentzat.

Idazketa-hitzarmenarentzat, txostenean ondoko elementuak agertu beharko dira:

- Fitxa artistiko eta tekniko bat autoreen eta produktoreen deitura-helbideekin; idazketaren plangintzarekin; obraren ezaugarri teknikoekin (iraupena, formatua, ...).
- Filmaren laburpena.
- Autorearen xede nota
- Produktorearen xede nota.
- Sinopsia.
- Zuzendaritza nota, tratamenduaren lehen norabidea(k) zehazteko.
- Idazketa aurrekontu bat.
- Idazketa finantzamendu-plana, behar bada bildu diren finantzamenduak zehaztuz.
- Autore(ar)en CVa.
- Produkzio sozietatearen edo elkartearen aurkezpena.
- Autorearen eta produktorearen artean izenpetu eskubideen lagatze kontratuaren kopia bat.
- 3 hilabete baino guttiagoko Kbis dokumentua sozietateentzat, edo prefeturako frogagiria elkartentzat.

PROIEKTU-DEIALDIA: FIKZIOZKO FILM LABURRAK

2018an, Kanaldude engaiatzen da fikziozko 1-2 film labur (unitario edo serie) aurre-erostera 200€/min-ko diru-ekarpen batekin. Horrez gain, berridazketa-hitzarmen bat izenpetuko da 2.000 €-ko ekarpen-finkoarekin, hots, orotara inbertsioa 7.200 €-koa izanen da. Industria-ekarpen batek katearen inbertsioa osatzen ahalko du onartuko diren proiektuen beharren arabera.

EGITUREK BETEBEHARREKO EZAUGARRIAK ETA HAUTAGARRITASUN IRIZPIDEAK

Egiturek betebeharreko ezaugarriak :

Nagusiki ikus-entzun edo zinema ekoizten duten egiturek soilik (APE 5911 A edo C kodea duten sozietate edo elkarteek) aurkez ditzazkete proiektuak (aurre-erosketa edota idazketa hitzarmenentzat).

Proiektuak gutienez ondoko bi irizpide bete behar ditu:

- Proiektua eramaten duen autore edo zuzendariak bere bizitegi nagusia eskualdeko lurraldean du;
- Proiektua eramaten duen ekoizpen-egitura eskualdeko lurraldean finkatua da;
- Proiektuak kultura harreman azkarra du Akitania Berriarekin;
- Fabrikazioaren parte nagusi bat eskualdeko lurraldean iraganen da.

PROIEKTUEN HAUTUA

Webtelebistako 2 ordezkari eta mundu profesionaletik datozen irakurleek hautaketa-batzorde bat osatuko dute. Proiektuen alde bateko hautaketa berantenez 2018ko maiatz bukaeran egingen da.

Aurre-erosiko diren fikziozko film laburrentzat, kateak eta irakurketa-batzordeak irizpide hauei kasu egingen die:

- Filmak publiko euskaradunari eskainiak izatea.
- Proiektuak kalitatezkoak izatea: gaiaren egokitasuna, gidoiaren kalitatea eta zuzendaritzaren originaltasuna.
- Eskualdeko proiektuak izatea.
- Proiektuak autore gazteek eramatea.

- Ekonomikoki eta teknikoki egingarri izatea, finantzamendu-plana sendoa izatea.
- 2019ko irailetik goiti hedatzeko prest izatea.
- Proiektuaren kariatara euskarazko gaitasun artistikoei edota teknikoei dei egitea edo horretarako formatzea.
- Proiektuek CNCren (Zinemaren Nazio Zentroaren) diru-laguntzen irizpideei erantzutea (laguntza automatikoak edo selektiboak).

Berridazketa-hitzarmenarentzat, kateak eta irakurketa-batzordeak irizpide hauei kasu egingen die :

- Filmak publiko euskaradunari eskainiak izatea.
- Proiektuak kalitatezkoak izatea: gaiaren egokitasuna, gidoiaren kalitatea eta zuzendaritzaren originaltasuna.
- Egitekoak gelditzen diren berridazketa lana, bilaketak eta leku aurkitzeak egokiak izatea.
- Proiektuak autore gazteek eramatea.
- Proiektuaren kariatara euskarazko gaitasun artistikoei edota teknikoei dei egitea edo horretarako formatzea.

PROIEKTUEN AZTERKETA

Proiektu-deialdiaren bururatzea: 2018ko martxoaren 30a.

2018ko martxoaren 30a arte igor daitezke, e-postaz, fitxategi bakarrean (PDF formatuan, gehienez 10 Mo) helbide honetara: prod@kanaldude.eus

Proiektuen hautagarritasuna egiaztatu ondoan eskuratze-agiri bat igorriko zaie proiektu-eramaileei, proiektua errezibitu den egunetik goiti aste bat barne.

Kateak ekoizleak deitzen ahalko ditu proiektuen garapena zertan den jakiteko gisan. Proiektu-eramaileei azkarki kontseilatzen zaie kateari proiektuaren eboluzio handien jakinaraztea e-postaz.

Aitzinetik erosiko diren proiektuentzat, txostenean ondoko elementuak agertu beharko dira:

- Fitxa artistiko eta tekniko bat autore, zuzendari, produktore eta koproduktoreen deitura-helbideekin; produkzioaren plangintzarekin; filmaren ezaugarri teknikoekin (iraupena, formatua...); filmaketa eta post-produkzio lekuekin; talde artistiko eta teknikoaren zerrendarekin.
- Filmaren laburpena.

- Autorearen edo zuzendariaren xede nota.
- Produktorearen xede nota.
- Gidoia
- Zuzendaritza nota bat filmaren tratamendua zehazteko.
- Aurrekontu zehatz bat Akitania Berriko eskualdean mobilizatuko diren jende eta teknika baliabideak agertaraziz.
- Finantzamendu-plana, behar bada bildu diren finantzamenduak zehaztuz.
- Autoreen eta film-egileen CVa.
- Proiektu-eramaile den produkzio sozietatearen edo elkartearen aurkezpena.
- Autorearen eta produktorearen artean izenpetu eskubideen lagatze kontratuaren kopia bat.
- 3 hilabete baino guttiagoko Kbis dokumentua sozietateentzat, edo prefeturako frogagiria elkarreentzat.

Idazketa-hitzarmenarentzat, txostenean ondoko elementuak agertu beharko dira:

- Fitxa artistiko eta tekniko bat autoreen eta produktore eragileen deitura-helbideekin; idazketaren plangintzarekin; obraren ezaugarri teknikoekin (iraupena, formatua,...).
- Filmaren laburpena.
- Autorearen xede nota.
- Produktorearen xede nota.
- Gidoia
- Aurreikusia den berridazketa lanaren aurkezpena.
- Idazketaren aurrekontu bat.
- Idazketaren finantzamendu-plana, behar bada bildu diren finantzamenduak zehaztuz.
- Autore(ar)en CVa.
- Proiektu-eramaile den produkzio sozietatearen edo elkartearen aurkezpena.
- Autorearen eta produktorearen artean izenpetu eskubideen lagatze kontratuaren kopia bat.
- 3 hilabete baino guttiagoko Kbis dokumentua sozietateentzat, edo prefeturako frogagiria elkarreentzat.

Edoizein galderarentzat, kontakta gaitzazue :

joana@kanaldude.eus

05 24 34 50 14